



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/10/31

## **Aldundiak 2018ko Bizkaiko Aurrekontu Proiektua erregistrau dau Batzar Nagusietan, hilebete bi iraungo dituan Batzarretako tramitazioari hasierara emonez**

Ana Otadui Batzar Nagusietako Presidenteak, 2018rako Lurraldeko Aurrekontu Proiektua jaso dau gaur José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantza Foru Diputatuaren eskutik. Kontu publikoak euskarri elektronikoa emotearen eta erregistroaren irudiagaz, beste urteetan egun honeetan gertatzen dan moduan, hasiera emongo jako abenduaren amaierara arte luzatu daiteken prozedureari.

Batzar Nagusiek arauzko proiektua onetsi ostean, foru diputatuek, bakotxaren sailari jagokozan kontuak azaldu beharko ditue datorren eguaztenetik aurrera egingo diran informazio batzordeetan. Bizkaiko Batzarretako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean egingo diran informazio saioek hiru egun –zemendiaren 8, 9 eta 10– iraungo ditue.

### **HERRITARREN ALEGAZINOAK**

Gainera, Aurrekontuak, beste edozein Foru Arau Proiektugaz gertatzen dan moduan, herritarren partaidetzara zabalduko dira, arautegiak adierazoten dauen moduan. Bizkaiko Batzar Nagusiek hurrengo egunetan aurkeztuko dabe dokumentua “[jjggbizkaia.eus](http://jjggbizkaia.eus)” webguneko “Herritarren atarian”, bizkaitar guztiek proiektuaren aurrean dituen ikuspuntuak, iradokizunak eta aldaketarako proposamenak bideratu ahal daiezan. Horretarako epea 10 egunekoa da. Igaz, herritarrek, taldeek, alkarteek edo GKEk bialdutako 20 alegazino eta iradokizun euki ebezan mahai gainean Batzarretako taldeek. Horreek guztiek euren proposamenak helduarazo ebezan, batzuk orokorrak eta beste batzuk oso zehatzak, arazo jakin batzuei erantzuteko edo hainbat gairen inguruan Aldundiaren esku-hartzea eskatzeko.

Aurrekontuen gaineko eztabaidea, prozesua urtea bukatu aurretik amaitu daiten dago antolatuta. Diputatuen agerraldiak egin eta dokumentua herritarrek egin beharreko alegazinoetarako zabaldu ostean, Batzar Nagusietako Mahaiak epea zabalduko dau batzarretako sei taldeek (Euzko Abertzaleak, EH Bildu, Euskal Sozialistak, Podemos Bizkaia, Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Misto), 7.813 milioi euroko zuzenbete osoa hartzen daben aurrekontuen aurreko zuzenketa-eskeak aurkeztu daiezan. Kopuru horretatik 1.193 milioi eurokoa da sailek erabili daikiena.

Jatorrizko testuari aurkeztu beharreko zuzenketa-eskeak aurkeztu eta gero, Bizkaiko Batzarrek aztertuko ditue, lehenengo osoko saioa deitu aurretik. Saio hori abenduaren erdialdean izango da, eta bertan testu osoaren aurrean aurkeztu diran zuzenketa-eskeak eztabaidatuko dira lehenengo. Osoko bilkura horren ostean, beharrezkoa bada, zuzenketa-eske partzialak batzordean eztabaidatuko dira. Eta batzarretako izapidetzea hilebete horren bukaeran amaituko litzateke, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordetik igaro ostean geratzen diran zuzenketa-eske partzialak aztertuko dituan beste osoko bilkura batez.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
31/10/2017

## **La Diputación registra en Juntas Generales el Proyecto de Presupuestos de Bizkaia de 2018, iniciando así una tramitación parlamentaria que durará dos meses**

La Presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha recibido hoy de manos del Diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarizaga, el Proyecto de Presupuestos del Territorio del año 2018 para iniciar su tramitación en el Parlamento de Bizkaia. Con la imagen de entrega y registro de las Cuentas públicas en soporte electrónico, arranca, como años atrás por estas fechas, un procedimiento que se puede alargar hasta finales del mes de diciembre.

Tras la admisión por parte de la Mesa de Juntas Generales del proyecto normativo, los diputados y diputadas forales deberán explicar las cuentas de sus respectivos departamentos en las comisiones informativas que se desarrollarán a partir del próximo miércoles. Tres días -8, 9 y 10 de noviembre- durarán las sesiones informativas en la comisión de Economía y Hacienda de la Cámara vizcaína, en donde los responsables de cada área detallarán el destino de los 1.193 millones de euros de gestión propia.

### **ALEGACIONES CIUDADANAS**

Al mismo tiempo, los Presupuestos, como cualquier otro Proyecto de Norma Foral, se abrirán a la participación ciudadana tal y como señala el reglamento. Las Juntas Generales de Bizkaia expondrán durante los próximos días el documento en el “Portal de la Ciudadanía” de la página web “[jjggbizkaia.eus](http://jjggbizkaia.eus)” para que vizcaínos y vizcaínas puedan transmitir sus puntos de vista, sugerencias y modificaciones al proyecto. El plazo es de 10 días. El año pasado, los grupos junteros tuvieron sobre la mesa un total de 20 alegaciones y sugerencias recibidas por parte de ciudadanos particulares, colectivos, asociaciones u ONGs, que hicieron llegar sus propuestas, unas generales y otras muy concretas, para responder a problemáticas muy específicas o sugerir la intervención de la Diputación en diferentes temas.

El debate de los Presupuestos está ordenado para que el proceso culmine antes de que acabe el año. Tras las comparencias de diputados y diputadas, y la apertura del documento a las alegaciones ciudadanas, la Mesa deberá abrir después el plazo para la presentación de enmiendas por parte de los seis grupos junteros (Nacionalistas Vascos, EH Bildu, Socialistas Vascos, Podemos Bizkaia, Popular Vizcaíno y Mixto), a unos presupuestos que cuentan con un montante total de 7.813 millones de euros, de los que 1.193 millones corresponden al disponible departamental.

Una vez presentadas las enmiendas al texto original, la Cámara vizcaína procederá al análisis de las mismas como paso previo a la convocatoria de una primera sesión plenaria, que se celebrará ya a mediados de diciembre, para debatir en primer lugar las enmiendas a la totalidad. Tras este pleno, en su caso, se debatirán las enmiendas parciales en comisión. Y el trámite parlamentario finalizaría a finales de ese mismo mes con un nuevo pleno que analice las enmiendas parciales que queden tras su paso por la Comisión de Economía y Hacienda.